



BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Egokitu zaizun rola defendatu behar duzu zure ikaskidearen aurrean. Argudiatu zure ikuspegia eta aldeko arrazoiak eman.

C1 MAILA**Gaia: EHIZA BAI****• Elkarrizketa bideratzeko:**

- Sustrai sozial, kultural eta ekonomiko sendoak ditu ehizak
- Bioaniztasunaren kontserbazioan laguntzen du: espezieen hazkuntzaren orekari erantzuten dio, adibidez.
- Landa-eremuaren garapen sozioekonomikoari laguntzen dio.
- Pisten konponketak, egokitzeak eta sastrakak kentzea eragiten du.
- Animalia basatien kalteak handiak izaten dira batez ere baserritarrentzat, eta horien kontrola bermatzen du.

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Egokitu zaizun rola defendatu behar duzu zure ikaskidearen aurrean. Argudiatu zure ikuspegia eta aldeko arrazoiak eman.

C1 MAILA**Gaia: EHIZA EZ****Elkarrizketa bideratzeko:**

- Animalien oinarrizko eskubideak urratzen dira: ez da etikoa, basakeriaz jokaten da.
- Animalia batzuk kontrolatzeko beste bide batzuk erabil daitezke, adibidez, antzutea.
- Gure lurraldea populatuegia dago edozein bazterretan ehiztariak tiroka sumatzeko.
- Ehizak ez dio naturaren orekari eusten, ingurumenaren orekan garrantzi handia dute animaliek; horregatik babesten dira.
- Ehizaren arrazoi nagusia aisialdiarekin lotuta dago: mendira joan, arrastoei jarraitu, txakurrak hezi, otorduak egin, lagunartea... Bestelako motibazioak bigarren mailakoak dira.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

- ESKUBIDEAK URRATU.- Eskubideak ez direnean errespetatzen eskubideak urratu egiten direla esaten da.
- OREKARI EUTSI.- Zerbaiten orekaren alde egin.
- NATUR INGURUNEA ERALDATU.- Gure ingurune naturala irauli, transformatu.
- ESPEZIEEN KUDEAKETA ARDURATSUA EGIN.- Espezieen kontrola zentzuna erabiliz, zuzen eta modu arautuan egin.

IDEIA LAGUNGARRIAK

- *Gaur egun jende asko kexatzen da ehiztariak edozein tokitan topatzen dituelako tiroka.*
- *Jendea gero eta sentsibilizatuago dago animaliak hiltzearen inguruan. Garaiak aldatu egin dira.*
- *Baserritarrek arazoak dituztenean, norengana jotzen dute? Batzuk, behintzat, arazoak konpontzeko gogoratzen dira ba ehiztariekin!*
- *Gizakiak beti ehizatu izan ditu animaliak. Gauza bat da arautzea eta bestea debekatzea.*

Gai honen inguruan IKASBIL atarian aurkituko dituzun beste material batzuk:

[Basurdeak kalean](#)

[Bailearen ehiza](#)

[Ehiztariak erasotuta](#)

Beste erreferentzia batzuk:

[Bioaniztasuna eta ehiza aurrez aurre \(Berria egunkaria\)](#)

[Ehiza badago saiatzen gara harrapatzen, eta bestela, hamaiketako egiten dugu \(Kronika\)](#)